



Familia agurgarria,

Ikasturte hasierarekin bat eginez, aurtengo **Eskolako Agenda 2030** programa martxan jartzeko lehen urratsak ematen ari gara. Programa bi ikasturteko zikloetan garatzen da eta ziklo bakoitzean Garapen Jasangarrirako Helburu (GJH) bat lantzen da. Une honetan, **GJH 11: Hiri eta Komunitate iraunkorrak** lantzen ari gara, eta zehazki, **Mugikortasun jasangarria** da jorratzen ari garen gaia.

Oraingoan, bi ikasturtetako zikloari amaiera emango diogu. Iaz **diagnostikoa** burutu genuen eta aurtun, **esku-hartze plana** gauzatuko dugu.

Hamaikagarren GJH honen xedea Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea da. Eta helmuga ezberdinen artean, garraiatzeko modu jasangarrien erabilera sustatzen du.

Herriko egoera aztertzeaz gain, ikastetxera nola goazen ere ezagutu genuen, Azkoitiko kaleak eta errepideen egoera, oinezko bideak, bidegorri sarea, herritik kanpo irteteko ditugun garraio motak, garraio publikoa... Aldi berean, herritarren iritziak ere ezagutu genituen, iradokizun ugari jasoz. Azterketa horrek gure ohituretan hausnartzeko eta hobekuntza-aukerak identifikatzeko aukera eman digu.

Beraz, iaz ateratako ondorioetatik lehentasunak markatu eta ikasturte honetan aurrera eramango ditugun ekintzak zehaztuko ditugu. Helburua da ikasleek ez soilik jasangarritasunari buruz ikastea, baizik eta beren ingurunea eraldatzeko prozesuan parte hartzea.

Zuek ere **interesatu eta parte hartzera** gonbidatu nahi zaituztegu. Familien inplikazioa funtsezkoa da proposatutako ekintzek benetako eragina izan dezaten. Zuen seme-alabekin ikasten ari direnari buruz hitz egitera, ideiak partekatzea eta ikasturtean zehar garatuko diren ekimenetan parte hartzera animatzen zaituztegu.

Elkarrekin, Azkoitia jasangarriago, irisgarriago eta atsegina bat eraiki dezakegu pertsona guztientzat. Eskerrik asko zuen laguntzagatik eta konpromisoagatik.

Agur bero bat,

Eskolako Agenda 2030eko batzordea